

Santa Ageda kanta-eskian ospitalaren alde



Aurreko hillian egogixago etorriko zan fotografixa hau, baiña merezi dauelakuan, orainguan kaleraketia pentsau dogu, atzerapentxo apur batekin bada be. **Santa Ageda bezperan kantuan** urteteko tradiziñuak gorabehera batzuk izan zittuan gerra ostian. Momentu batian **debekau be egin euen** herriko agintarixak, kuadrilla batzuk larregixan ibiltten ziralako-edo. Baiña, gerotxuago, hartarako baimena emun ostien hurrengo urtian soldauzkara fan bihar euen mutil gaztiari, euren penak arinketako, nunbait. **Kinttuen kontua**, ba, ezta hain antxiñakua.

Dana dala, kinttuak etziran batzuk be jardun euen noizian behin halako zeregiñetan. Behin **kuadrilla heldu samarra** ibili zan kantuan asmo desbardin batekin: **herriko ospitalerako dirua batzeko**. Gaiñera, Santa Agedakuaz aparte, baeukain horretarako **bertso berezi batzuk be**, **Biktoriano Ugartek** moldautakuak; bestiak beste, ospitalaren alde egittia inportantia dala esaten daue bertsuok, egunen batian hara fateko premiñan egon geinkielako.

Argazki honetan ikusten dittugunak **kaletarrak dira danak**: dotore asko jantzittako kantarixak, **bi txistularirekin**, Oñatin izan diran onenetakuak, **Iriarte aitta-semiak**, eta **zaldi eder batekin**, Egañaneko panaderixakua seguruenik, txorixuak eta bestelakuak karriaitteko. Fotografixa San Pedroko torriaren aurrian atarata dago eta 1950 hamarkadiaren erdi ingurukua-edo izan leike. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Goiko illaran zutik: **Alberto Altuna**, Atzeko kalekua; **Jabier Egaña**, Kale Barriko panaderixakua; **Rikardo Elortza**, Santa Marinakua; **Demetrio Iriarte** txistularixa, Atzeko kalekua; bere aurrian makurtuta Demetrioren semia, **Hijinio Iriarte**, hau be txistularixa; **Justo Lizarralde**, Kale Zaharreko *Uztargiñena*; eta **Ramon Onraitia**, Lezesarriko *Gomendio-enea* etxian bizi zana.

Behoko illaran belauniko: **Jenaro Arregi Makalena**, orduan Atzeko kalia, orain Ramon Irizar kalia; **Jose Mari Letamendi**, plazako dendakua; **Joxe Mari Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; eta **Juanito Arregi**, Kale Zaharreko *Arrillagena*.

Lehiaketia

J. E.

Oso pozik gagoz, fan dan hilleko lehiaketatxuak guk uste baiño jarriapen hobia euki dauelako. Erantzulien artian gehixen hurre-ratu dana **Iñaki Ormazabal** izan da: 1908. urtia jarri dau argazkixaren data lez. Ez pentsau, etzan hain samurra eta guk geuk be zalantzak gittuan. Azkenian, baiña, zera erabagi dogu: fotografixa hori 1903 eta 1906 artian ataratakua izan leikiela. Arrazoiak? Ba, **Goizeko Izarra**, **Pilar Enea**, **Aloña alde** eta **Ibaiondo** palaziotxuak XIX. gizaldiko azkenengo urtietan eta XX. eko lehenenguetan jaso ziralako; eta, batez be, **Olalde** baserrixa 1806-1807 inguruan erre ondoren, barriztau egin bihar izan euelako.

Milla esker xehetasun batzuk arkiketan lagundu doskuen **Xabier Zelaia** eta **Jaione Ugarteri**, eta bereziki lehiaketan parte har-tu dozen guztioi. Iñakiri zorionak eta gogoratu sarixa zain dakola Olako Torrian.